# BONOBO BETAURREKODUNEN EGIAZKO HISTORIA

Testua: ADELA TURÍN

Irudiak: NELLA BOSNIA

Itzulpena: FERNANDO REY ESCALERA




Kartoi gogorrean egina. 21,5 x 27 cm. 40 orrialde. 16 €.


**Bonobo betaurrekodunen egiazko historia** (euskara)
ISBN 978-84-7681-848-0. Kalandraka-Pamiela.

**La historia de los bonobos con gafas** (gaztelania)
ISBN 978-84-8464-831-4. Libros para soñar.

**A historia dos bonobos con lentes** (galegoa)
ISBN 978-84-8464-832-1. Tras os montes.

**La història dels bonobos amb ulleres** (katalana)
ISBN 978-84-8464-833-8. Kalandraka.

**A história dos bonobos com óculos** (portugesa)
ISBN 978-989-749-009-5. Livros para sonhar.


- **Gaia:** giza harremanak.
- **Adin egokia:** 5 urtetik gora.
- **Nabarmentzeko moduakoak:** baterako hezkuntza, berdintasuna, askatasuna; estereotipo sexisten kontrako borroka; "Arrosa eta leuna", "Arturo eta Klementina" eta "Zorioneko hondamendia" ipuinen irudigilea.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/bonobos-eusk

*Orain dela urte asko eta asko, aspaldi handian,*
*hainbat bonobo oihanean bizi ziren, mangladi batean.*
*Egun guztia fruitu eta baiak, intxaur eta haziak,*
*sustrai eta kimu berriak jaten ematen zuten, eta,*
*bonobo emeak lan eta lan aritzen ziren janaria biltzen,*
*helduentzat eta umeentzat.*

Orain dela 30 urtetik gora, Adela Turín «Dalla parte delle bambine» izeneko bilduma argitaratzen hasi zen Italian. Handik laster, Esther Tusquetsek argitaratu zuen Espainian, «A favor de las niñas» bilduman ("Neskatoen alde"). Baterako hezkuntzari eta sexuen arteko berdintasunari buruzko erreferentzia bihurtu zen liburu bilduma, eta zenbait hizkuntzatara itzuli. Denbora pasatu bada ere, gaur egun liburu hauek behar-beharrezkoak dira oraindik.

Bonobo ar eta emeek oso estatus desberdina zuten elkarrekin bizi ziren mangladian. Arrek emeek bildutakoa jaten zuten; arrek bidaiatu egiten zuten, ikasi, aurrerapenez baliatu... baina ez zieten emeei gauza bera egiten. Gainera, irri egiten zieten itxura zela-eta. Uste oker bat zuten: talde osoaren hezkuntza eta aurrerapena kaltegarriak omen ziren. Baina bonobo emeak egoeraz nekatu egin ziren bonobo arren jokabide berekoiaz.

Alegia honek -"Arturo eta Klementina" eta "Arrosa eta leuna" ipuinek bezala-, gizartean emakumeak duen balioa goratu nahi du, eta estereotipo sexistak eta diskriminazioa gainditu, pentsamoldeak aldatzeko eta mundu hobea eraikitzeko.

## Adela Turín

(Italia, 1939)

Artearen historialaria eta idazlea. 60ko hamarkadan haurrentzako literaturaren ezaugarri sexistak aztertu zituen. Milanen, Rivolta taldean hartu zuen parte (mugimendu feministari lotutako taldea). Familia patriarkalaren generoko bazterkeriari gogo egiteko asmoz, «Dalla parte delle bambine» bilduma sortu zuen, eta 1975etik 1980ra bitartean, hogei liburutik gora argitaratu zuen. Adela Turín eta Nella Bosnia, garai hartan, "La Rinascente" ari ziren lanean. Urte batzuk geroago, Parisera joan zen, eta han, Silvie Cromer-ekin, «Du côté des filles» elkartea sortu zuen, 1994az geroztik hezkuntzako materialen sexismo kasuak aztertzen dituena eta argitaletxe, erakunde eta herritarrak sentsibilizatzeko mekanismoak sortzen dituena. Gaur egun, irakurtzeaz eta bidaiatzeaz gainera, artikuluak idatzi eta hitzaldiak ematen ditu.

## Nella Bosnia

(Italia, 1946)

Artea Milanen ikasi zuen, eta dekoratzaile eta estilista lana egin zuen "La Rinascente" enpresarentzat, ehungintzako produktuak sortzen. Enpresan, lan horretan, Adela Turín ezagutu zuen, eta, harekin batera, «Dalla parte delle bambine» bilduma sortu. Italiako eta Frantziako zenbait argitaletxerentzat egin du irudigile lana.




www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com